

# EZAGUTU DEZAGUN LESAKA 2024

## 1-2. mailakoentzako GALDETEGIA



Taldekilde guzien izen-abizenak: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Taldearen izena: \_\_\_\_\_ Maila: \_\_\_\_\_

1. Zeintzuk izan dira V. LML-ko bazkide irabazleak?
2. Erdian burdinezko barra bat duten zenbat lehiotxok argitzen dute Lesakako elizako kanpandorrerako bidea?
3. Arbolaren Eguneko unitate didaktikoan landu zenutenez, landare batek lau elementu behar ditu hazitzeko. Zeintzuk?
4. Zenbat banku daude Lesakako Andra Mari Egoitzako patioan?
5. Korrikako zenbatgarren kilometroa erosi du aurten Beti Gaztek?
6. Duela 25 urte Beti Gazteko sokatira taldea lehendabiziko aldiz munduko txapeldun izan zen. Aurten ere munduko txapelketa jokatu da eta, berriz ere, munduko txapeldun izatea lortu dute. Aurtengo firalarien artean baziren duela 25 urte munduko txapeldun izan zirenak. Idatz itzazu firalari horien izen-abizenak?
7. Harrizko zenbat mahai daude Fraingo kaskoan?
8. Bambiren antza handia duen zein animalia bizi da Lesakako mendietan?

9. Nola izena du Lesakako sarrerako serreraren ondoko etxeak?
10. Zenbat arku ditu berriki zaharberitu duten Bereauko Erdi Aroko zubiak?
11. Nola izena zuen Mastegi eraiki aurretik Beti Gazteko futbol taldeak jokatzen zuen zelaiak?
12. Bianditz mendian badago musika tresna batzuen eskultura bat. Zein musika tresna dira?
13. Izenda itzazu Lesakaren mugakide diren udalerriak.
14. Lesakako zein bertsolarik kantatu zuen 2023ko abenduan Iruñean ospatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean?
15. Zein sinbolo ageri dira Lesakako armarrian?
16. Zein da San Ferminetan musika bandak eta txistulariek jotzen duten Santiago Irigoienek konposatutako doinua?
17. Ze izen du garai batean Xaruta Ostatua zegoen etxeak?
18. Udaberrian arrosa kolorez janzten diren zenbat Prunus Pisardi, edo Aran Gorri, daude Plaza Zaharrean?
19. Herriko zein musika taldek bete zituen 10 urte 2023an?
20. Ze etxetakoa da Pantxika?

